

Lierni Ricón Santoyo

A maila • Aipamena

Lierni Ricón Santoyo, hamazazpi urte eta hamaika hilabete, gaztea, beasaindarra, neska, ikaslea, liburu zalea. Hauek izan litezke nire etiketak, baina etiketak arroparentzako direla uste dudanez, eta ez pertsonentzat, hori guztia ez naiz ni.

Isiltasuna hausten duen algara naiz, edozeini irribarre bat oparitzen dion ahoa, lo egitean ixten diren bi begi, ordenagailuaren teklak zapaltzen dituzten eta bolaluma eusten dituzten hamar behatz. Aurpegi soil bat askorentzat, eta lagun bat baino gehiago batzuentzat.

Hori guztia, eta jarraian daukazuen 74 lerroak, naiz ni.



GEROAK ESAN BEZA

Geroak esan beza,
non utzi dugun iragana.
Zein zirrikitutatik erori eta desagertu den,
tanta bat hondartzako aretan desagertzen
den bezala.

Haizeak eraman bide duen,
udazkeneko hosto baten moduan.
Eskuetatik ihes egin bide digun,
iturriko ur gardenaren antzera.

Denbora galtzen ari naiz
Denbora galkorra baldin bada, behintzat
Zer da, ba, denbora?
Gure inguruan etengabe
Olatu bat, uholde bat
Aurpegian jotzen gaituena
Atzean hondamen krudela utziz.

Hilzorian nago, amildegiaren ertzean
Idatzitako hau azkena izan liteke
Hilzorian nago, lehen arnasa eman nuenetik
Pauso bakoitzak iluntasunera hurbiltzen nau
Hilzorian nago, ez negar egin
Heriok epeltasunean besarkatzen nauenean

Atzoa ederra zen
Gaurra erreala da

Biharra ametsa izango da
Edo agian
Atzoa ez dugu gogoratzen
Gaurrean bizirauten saiatzen gara
Biharra ez da existitzen.

Gaur goizean,
agur esan diot atzo izan nintzenari.
Bihar goizean,
bihar izango naizenak agur esango dit.
Askotan esan dut agur,
baina ez dakit bideko zein bazterretan
gelditu diren noizbait ni izan zirenak.

Non gelditu ziren
haurtzaroko mototsak eta algarak?
Urteetan zehar itzarrik pasa nituen
Gau ilunetan galdu ote ziren?

Denborak ostu zizkidan,
Ostu dizkit, ostuko dizkit
Amaierarik gabeko krimen perfektua.

Non gelditu dira
Gaztaroko kemen eta ametsak?
Kopetako zimurren artean
Ezkutaketan jolasten ari ote dira?

Konturatzen naizenerako
Beranduegi da
Ezin dut ezer egin,
Inork ezin du ezer egin
Denbora betiereko lapurra da.

Non geldituko dira
Zahartzaroko jakinduria eta oroimenak?
Nire hezur-haragiak hauts bihurtzean
Haizeak eramango al ditu?

Geroak esan beza,
non egongo naizen,
iragana bihurtzen naizenean.

Zenbat iraungo ote du nire oroitzapenak?
Nire azken hatsarekin desagertuko al da,
Noizbait izango naizenaren errautsekin
batera?
Ni desagertzean hemen geldituko direnek
Zainduko al dute, altxor bat bailitzan?
Euren ondorengoek gordeko al dute,

Lotara joan aurretik entzundako ipuin bat
bailitzan?

Nola jakin
hau noizbait errealia izan den ala ez
Nola jakin
Desagertzen naizenean
Hau guztia desagertuko ote den
Erlojuaren orratzek denboraren jarioa
etengo ote duten

Geroak esan beza,
Zer gertatuko den
Iragana bihurtzen naizenean.